



3 GIZARTEA
Ernairen "Larrutu Sistema" kanpaldia Okendon

Gazteek gaur egun lan munduan bizi duten prekaritate eta ezegonkortasun zehar salatzeko, kanpaldia egin zuen herriko Ernaik Okendo plazan. Ostegunetik larunbatera arte luzatu zituzten herriko hitzaldiak, kontzertu eta ekintzek Bilbon izan zuten amaiera maiatzaren 3ko manifestazio nazionalan. "Larrutu sistema, eraldaketa gure baitan" lemapean.

4 ERROMERIA
Eguraldi bikaina eta giro aparta atzo Azkorten

Lasarteoriatarrek erromeria eguna ospatu zuten atzo Azkorten urteroko hitzorduari jarraiki. Eguraldi eguzkitsua eta atsegin lagun, bertan hamaiketako egin, bertsokoen entzun eta dantzarako aukera izan zuten heritarrek. Amaluru trikiti eta pandero eskolakoekin doinuek girotu zuten erromeria. Herri-kiroalak, bertsolariak eta urteroko mezak ere ez zuten hutsik egin atzoko egun ederrean.



Ostadarreko neskek txapeladun Gipuzkoako txapela eskuratu dute Aieteko Lauko Finalean



Ostadarreko kadete mailako neskek balentria egin zuten atzo Aieteko kiroldegian. Denboraldi honetan 22-0eko partziala eskuratu dute Errendimendu Ligan Gipuzkoako txapeladun izateko. Lauko Finalean lehenik Atletico SS kanporatu zuten (62-52), eta final handian berriz Añorgari gailendu zitzaion 56 eta 63ko emaitza. Juniorrek berriz, 46-39 irabazi zioten Ayma Goierri larunbat arratsaldean Lasarte-Oriako Kiroldegian jokatutako parte-hartze ligako partidua.

Final gorabeheratsua

Oro har, neureketa serioa jokatuzituzten Ostadarreko neskek, baina partidaren zenbait unetan urduritasuna gailendu zen herriko nesken jokoan. Dena den, egindakoaz harro mintzo zen Otaegi: "Ondo ekin diogu partidari, 7-0eko partzialaz, baina atsedendaldian Añorgarrek ia hamar puntuko aldearekin auzi eman beharrean gaude".

Beste garaien bat. Guztira denboraldi honetan 22. Eta galdutakoak aherik ez. Garaien guzti horiek gainera zazpi jokalarirekin bakarrik erdietsi dituzte: Ainhoa Morales, Yaiza Navarro, Oihane

Lizaso, Sara Zulaika, Haizea del Olmo, Itaso Mercero eta Uxue Rodriguezekin hain zuzen. Gogoratzeko moduko denboraldia osatu du taldeak.

Lehen postuaren bila

Bestalde, Endika Marrahi eta Mikel Bermejoen junior taldeak fase honetako lehenengo postua du jokoan eta oraingoz ongi bideratuta daukate borroka.

Ayma Goierri dute herritarrek arierio eta larunbatean urretxuarren aurka joaneko partidua 49-39 irabazi ostean, maiatzaren 11n, igandean jokatuko dute itzulerako norgehiagoka 12:15etatik aurrera Uretxuko kiroldegian.

Endika Marrahi prestatzailea baikor da: "Lehen itzulitik hobetu egin dugu, konfiantza jokatzen dugu eta gainera sei puntuko abantailarekin goaz".

Irabazteko moduak eta moduak egoten dira. Askotariko moduak. Eta Ostadarrek modu ikusgarrian eskuratu du kadete mailan errendimendu Ligako txapela.

Denboraldi honetan ez dute aherik galduta eta horretan zeresan handia izan dute jokalariek gain, Itziar Bermudez eta Ander Otaegi entrenatzaileek.

"Ez genuen espero, iaz jogen maila honetara eta irabazteko moduak eta moduak egoten dira. Askotariko moduak. Eta Ostadarrek modu ikusgarrian eskuratu du kadete mailan errendimendu Ligako txapela.

bazi egin dugu Liga, gauzak ondo egiten ari garenen seinale da", dio Otaegi.

Larunbatean jokatuzituzten Lauko Finaleko lehen partidak. Atletico San Sebastian kaleratzeko gai izan ziren herritarrek 62 eta 52ko emaitza eta Añorgak 40-33 irabazi zion Azpeitiari beste finalurrekoan.

Hortaz, finalean Ostadar eta Añorga izango ziren aurrez aurre.



Ate irekiak maiatzaren 10ean eta 17an (larunbatak)

Goi-mailako Erdi-mailako HEZIKETA ZIKLOAK



GIZARTEA

Balioetan hezi jardunaldiak gaurtik

Danak Kidek Ekologia hautatu du aurten gaitzat, bestalde, ostiralean Hodeiertzen kontzertua ere antolatuta du

Danak Kide elkarteak bi ekintza eramango ditu aurrera aste honetan. Lehenik astelehenerdik asteazkenea, Balioetan hezi jardunaldiak izango dira Manuel Lekuea kultur-etxean; ostiralean, berriz, Musika Topaketen saio berria dago programatuta. Tolosako Hodeiertz abesbatzak eskualdeko musikari nagusi den egitaraua eskainiko du.

TXINTXARRI

Beste urte batez eta dagoeneko hamaika dira, Danak Kide elkarteak Balioetan hezi jardunaldiak antolatuta ditu.

Herritarren artean arrakasta handia duten jardunaldi hauetan giza balioek gizarte gaietan duten garrantziari buruz mintzatzen da. Aurten ekologia izango da aztertuko den gaia.

Aditu ezberdinek giza balio eta jarduerak ekologiaraino eraman dituzte azalduko dute. Izan ere, ekologia, natura eta gizabidearen arteko haren artean aztertzen baita eta bizitzaren osotasunean ikustera berraztertzen baita.

Gaur hasi eta asteazkenean bukatuko diren jardunaldien bitartez, gure herria eta munduaren etorkizuna gure esku dagoela eta hau

zaindu eta mantentzea gure erantzukizuna dela ohartarazi nahi dute.

Era honetara, gaur "Ecologia y ecosistema" hitzaldia eskainiko du Xabier Muroa Erlizjo Zientzien Goi Mailako Institutu irakasleak.

Unai Oñaederra Manu Robles Araguiz elkarteeko ingeniari eta kidea ekologia eta giza baloreei buruz mintzatuko da bihar.

Eta azkeazkenean, "Ecologia y sociedad" gaia jorratuko du Rai Mendiburuk, Aranzadi elkarteak dimamizatzailerik eta ingurumen hizkariak.

Saio guztiak Manuel Lekuea kultur-etxeko hitzaldi aretoan izango dira 19:30etatik aurrera.

Musika Topaketa

IX. Musika Topaketen barnean, ostiralean sona handiko abesbatza izango da



Tolosako Hodeiertz abesbatza izango da ostiralean Ama Brigitarren komentuan.

gurean, Tolosako Hodeiertz Abesbatza. Hitzordua 19:30ean izango da Ama Brigitarren komentuan.

Enrique Azurzak zuzendutako eskualdeko musikari taldeak eta kizilidunak oinarritutako emanaldia eskainiko du taldeak. Eva Ugaldete eta David Azurza egile gazteen zein Javier Bello-Portu, Francisco Escudero eta Javier Bustoren doinu eta konponketak entzuteko aukera izango da.

Hodeiertz abesbatza Tolosan sortu zen 1983. urtean. Ibilbide eta historia handiko taldea da eta nazioartean hainbat topaketa eta ekitalditan parte hartu du, hala nola, ohikoa da abesbatzaren parte-hartzea Donostiako Musika hamabostaldian.

2003. urtean, Indiako gobernuak gonbidatuta hiru kontzertu eskaini zituen Mumbai, Delhi eta Bangaloren.

Lehiaketetan hainbat sari eskuratu ditu: 2003an Gorizia, Italiako Nazioarteko lehiaketan edo 2010ean Tolosako Nazioarteko lehiaketan hirugarren postua. Azken honetan Oroith abesbatzarekin batera.

Maiatzean Pariseko Unibertsitateak gonbidatuta eskualdeko musika tradizionala edo garaikidea erakutsi eta sustatzeko Frantziako hiriburura bidaiatuko da abesbatzak.

Lehen emanaldian David Azurza komposagile Tolosarraren "Saint Jakeerat" lana estreineko eskainiko dute beste 200 bat abotekin batera.

Uztailen berriz, Madrilen topaketa batean parte hartzerako gonbidatuta izan da, Estatu-ko beste talde batzuekin batera. Emanaldi hauetan Thomas Tallis-en "Spem in Alium" lan garrantzitsua eskainiko dute eta The Tallis Scholars abesbatzako Peter Philipse zuzenduko ditu.

Danak Kide elkarteak herritarrek bi ekintza hauetan parte hartzea gonbidatzen ditu.

Azken egunak Txokoetan izena emateko

Haur eta gaztekoek udarran badute aukera herrian lagunekin ederki gozatzeko. Ttakun kultur elkarteak udalaren laguntza erantsi duen antolatzen dituen txokoetan izena emateko azken egunak dira hauek. Ostiralean, maiatzaren 9an izango da azken aukera.

Dagoeneko haur eta gazteko askok eman dute izena udako txokoetan baina oraindik badira plaza adin tarteko guztietan, bai uztailen baita abuztuan ere.

Eskaintza zehazki 3 eta 12 urte arteko haur eta gazteentzako da.

Izena ematea Ttakuneko bulegoan egin behar da eta bertan txartelarekin ordaintzeko aukera dute hala nahi duten gurasoek. Bestela, ordainagiria ekarri beharko da plaza ziurtatuta gerta dadin.

Edozein zalantza edo informazio gehiagorako asia@ttakun.com helbidera idatzi daiteke edo 943 371 448 telefonora deitu.

Frontoiak betetzea helburu presoen sakabanaketaren aurka

Etxeretek "Pilotakadaz pilotakada" ekimena aurkeztu zuen larunbat eguerdian Usurbilen.

Presoen sakabanaketaren kontra frontoiak betetzea da proposamen berri honen helburua eta Lasarte-Oriaren kasuan, Loidibarrenen egoitza da ekimena maiatzaren 10ean 9:00etatik aurrera.

Eskuz banaka, binaka eta pala txapelketak egiteko aukera izango da eta haur eta gazteentzat jokoak ere egoitza dira.



Buruntzaldeko "Pilotakadaz pilotakada" ekimenaren aurkezpena Usurbilen. NOLAIA

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko irizti-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarteak
Nerea Espagme, Maider
Azurmendi, Jon Abusa E-
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Antola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muroa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Ondozola, Jone M. Hernandez,
Oihana Salazar, Fiko Alzaitarte,
Edu Calardi

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Espagme, Maider
Azurmendi, Jon Abusa E-
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Antola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muroa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Ondozola, Jone M. Hernandez,
Oihana Salazar, Fiko Alzaitarte,
Edu Calardi

Informatikoa:

Xabier Aranzad

GIZARTEA

Bestelako eredu baten alde borrokan

Lasarte-Oriako Ernaik "Larrutu Sistema" kanpaldia egin du asteburuan

Langileen Eguna izan zen maiatzaren 1a eta sindikatuen aldarriez gain, Ernaik kanpaldia egin zuen gazteek bizi duten egoera gordina salatzen. Ostegunetik larunbatera arte luzatu zituzten herriko hitzaldi, kontzertu eta ekintzak Bilbon izan zuten amaiera larunbateko manifestazioan, "Larrutu sistema, eraldaketa gure baitan" lelopean.

TXINTXARRI



Eguraldi txarra izan dute hiru egun iraun duen Ernairen gazte-kanpaldian.

Gazteek gaur egun lan munduan bizi duten "prekarietatea eta ezegonkortasun zein segurtasun eza" salatzen, kanpaldia egin zuen herriko Ernaik Okendo plazan, zehazkiago esanda, Udaletxe atariko belazean. Ostegun jarri zituzten kanpin dendak eta lehen eguna gunea eraiki eta ekintzak adosteko erabili zuten baitak-bat.

Ostiral goizean herriko hainbat saltoki handitan ekintza deigarriak egin zituzten eta arratsaldean berriz Ainhoa Beola EH Bilduko kideak hitzaldia eman zuten Kutxabanken inguruan.

Hurreratu ziren 20 herritarrek zituzten zalantzak, galderak eta amorrizioak entzun

eta hauei irtenbidea ematen saiatu zen Kutxabako Administrazio Kontseiluko kidea.

Kutxabanken funtzionamendua eragari orokorra atera eta kutxek gizartegintza zuten papera eta ardura ere aztertzen zituen. Horretaz gain, desajabeteak, gazteen lan-baldintzak, alokairu soziala eta Kutxabanken eskara zerbitzua ere izan zituzten mintzagai.

Gauetan, aforlostean, Zarauzko Mor More taldearen kontzertua egin zen gunean.

Larunbat goizean "Amesteko gunea" jaso, txukundu eta Bilboko manifestazio nazionalerako bidea hartu zuten hainbat gaztek.



Ainhoa Beola EH Bilduko eta Kutxabako administrazio kontseiluko kidearen hitzaldia.

Kezkatzeko datuak

Ernaik aurkeztutako "Gazteria, lana eta prekarietatea" dossieraren arabera, Euskal Herriko gazteen %72a baino gehiago ez da pobrezia-eraren langa igarotzerara iristen eta krisia hasi zenetik sinatzen diren kontratuen %95,5 aldi baterakoak izaten dira.

Ondorioen artean, nagusiki bi aipatzen dituzte: "emantzipatzeko ezintasuna eta migrazioa beharrezkoa".

Arazo honi irtenbidea aurkitzeko argi du Ernaik neoliberalismoaren aurka egin behar dela, tresna "politiko eta ekonomikoak" erabiliz eta "burujabetza" aldarrikatuz.

Kultura aniztasuna dantzaren nazioarteko egunean

Nazioarteko dantzaren eguna izan zen asteartean, apirilaren 29a. Horregatik Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak II. Dantza Topaketak antolatu zituzten. Hauetan bertako, zein nazioarteko dantzak ikusteko aukera izan zen herriko hainbat talderen eskutik.

Manuel Lekuona kultur-etxean dantza emanaldi eder-raz gozatu ahal izan zuten bertaratu ziren herritarrek.

Ekitaldiaren hasieran, dantzaren nazioarteko eguneko manifestua irakurri zen.

Honela Mourad Merzouki dantzari eta koreografo frantsesaren hitzak entzuten ahal izan ziren Kukukako Maider Oiarzabal eta Jokin Ayerregay kideen ahokik.

"Artista bakoitzak bere artearen harrotasuna du" izenburuko idatziak, dantza profesionalak, zailtasunen



Herriko afrikar talde batek dantza bat eskaini zuen emanaldian.

gaitetik, maitatzen duten lanbidean lan egitera animatzen zuten mezuak, dantzaren edertasuna eta honek bitartzen duen eraginetik abiatatu.

Munduko dantzak

Oholtza gainean, Lasarte-Oriako kultur aniztasuna agerian utzi zuten hainbat taldek: Amaia Gonzalez Caballero

eta bere eskolako kideak, Kukuka Antzerki eta Dantza taldeko dantza garaikide eta sorkuntza taldeak, Erketz EDT, Semblante Andaluz elkarteko gazteokuen dantza taldeak eta saharar eta afrikar taldeak.

Guztiak jantzi koloretsuak soinean, euren dantza eskaini zituzten. Amaia Caballero Jose Mari Orbegozorekin tango bat dantzatu zuen, bere eskolako ikasleek saltsa, Semblante Andaluzeko gazteokuen taldeak sevilla-nak, Erketzek euskal dantza tradizionala eta Kukukatik dantza garaikideko kideak dantzatu zituzten dantza baina.

Kukuka dantza antzerki eskola izan izan zen ekitaldiaren sustatzailea eta aurrerantzean dantzaren eguna modu berezian ospatzeko asmoa azaldu zuten.

UDALA

San Pedrotarako kartelak aurkezteko azken eguna

Udaleko Gazteria eta Festak sailak beste urte batez San Pedro jaietako kartela aurkeztzeko lehiaketa jarri du martxan.

Martxoan zabaldu zen epea lanak aurkezteko eta gaur astelehena da lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Formato digitaletan, artxiboaren izena obraren izenburutaz joko da eta lanak posta elektronikoz bidaliko dira, sanpedrojaia@lasarteoriararen.eu helbidera. Mezuaren atxikita testuzko dokumentu bat joan beharko da egilearen datu pertsonalekin.

Aurtengoa irabazleentzat saria 600 eurokoa izango da eta aurreko urteetan bezala herritarrek aukera izango dute aurkeztutako lanen artean gustukoena zein duten azaltzeko.

BIYAK BAT

Lizarrara irteera

Biyak Bat elkarteko kideek Lizarrara txangoa antolatu dute. Maiatzaren 15ean izango da irteera goizeko 9:00etan egoitza aurretan.

Lizarra ezagutu eta indarrak berreskuratzeko Lizarteria jatean bazkalduko dute. Osteen, bingoa eta dantzaldia izango dira.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnak berriz, 40 euro.

Gaur, maiatzak 5, irekiko da izen-ematea.

TOPAKETA

10 talde izango dira maiatzaren 17ko Batukada topaketan

Herriko Dinbi Banda Batukadak antolatutako bigarren topaketak maiatzaren 17an ospatuko dira eta honetan Euskal Herriko txoko ezberdinetatik iritsitako hamar talde izango dira.

Urnieta koro Buruntzantzan, Donostiako Taupada, Iruñeatik Kaleanbatu, Gaiteztik Beriba eta Kumbalaya, Errenteriko ZolZongo, Bilbotik Batukale, Batukoix Otxandiotik eta azkenik, Zaparrada Zornotzik inpartatu dira herria batukadaren doimatan mugiltzen.

Dinbi Bandako kideak dagoeneko azken prestaketa lanetan ari dira.



Jende asko bildu zen Azkorteke ermita aurrten egin zen erromerian. Bertsoko, herri-kirolak, pintxoak... izan zituzten. gozagarri.



Meza, Labaka eta Iguanen bertsolariak, herri-kirolak... Egitarau beteja izan zen atzo.

Erromeria jendetsua

Urtero bezala Azkorten jai giroa nagusitu zen

Urteroko hitzorduari jarraiki lasarteoriarrek erromeria eguna ospatu zuten atzo Azkorten. Eguraldi eguzkitsua lagun, bertan hamaiketako egin eta dantzarako aukera izan zuten herritar askok. Amalur trikiti eta pandero eskaloken doinuek girotu zuten erromeria, herri kirolak, bertsolariak eta urteroko mezak ez zuten hutsik egin.

Telleriak aurkeztuta. Harria jasotzen Urzti eta Beñat Telleria anaiak izan ziren eta erakustaldi ederra eskaini zuten Ugaiz eta Aratz Mugerza aizkolariekin batera.

Ikusleak animatzeko, eronka egin zuten, 30 altxaldi eta 6 egur proba konbinatu. Gazteak zaharrenean aurka lehiatu ziren eta indarrak nahikoa orekatuak egon arren, azkenean garaipeña anai zaharrentzat izan zen.

Musika eta azken dantza tartearekin amaiera eman zitzaion goizari. Aipatu behar da erromerian tabernatxoak ere jartzten dela eta Etxezarretako haragi, odolki eta txorixo pintxoek arrakasta handia izan zutela.

TXINTXARRI

Ohiturari eutsiz, Azkorten jai giroa izan zen ingandean nagusi. 11etan meza berzia egin zen eta honetan Alboka abesbatzako kideek abestu zuten. Amalur trikiti eta pandero eskaloko lagunek dantzarietarako doinuek ere jarri zituzten. Honen ostean, gehienek hamaiketako egin eta Ane Labaka eta Beñat

Iguran bertsolariak eskainitako saioaz gozatzeko aukera izan zuten.

Bertsolariak gazte falta sumatu zuten baseliza inguruan eta hauek bertaratu ez izanaz jardun ziren besteak beste.

Amalur trikiti eskolako kideen kantein dantzarako tartea izan zuten bertaratu-toko haur zein helduek. Herri kirol erakustaldi polita ikusteko aukera ere izan zen Iratiz



HERRITARREN ESKUBIDEETI BAI

Maiatzak 09 ostirala
Arratsaldeko 19etan Okendo plazan

Ekitaldia




MaITE

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beñte hainbat zerbitzu

Prezio herriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Ustien Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Etxeko txorizoa

Txistorra



Solomoa baratxuritan

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Gemma Sanginés Psikologoa

“Hiztun kontzientea izatea da gakoa”

TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) tailerraren sortzaileetako bat da Gemma Sanginés. Psikologo honek Ferran Suayekin batera garatutako metodologik hizkuntza gutxituetako hiztunen jokamodu “paranormalak” aztertu eta hauek gainditzeko behar diren tresnak erakustea du oinarri. Valentzian katalaren erabileran izan zuten abiapuntu baina euskararekin eta orokorrean hizkuntza gutxitu guztiaren aplikatu daitezkeen tresnak direla argi dauka. Aurreko astean hainbat ikas-torako eman zituen Lasarte-Orian.

Maidor AZURMENDI

Gemma Sanginés Euskal Herrira urtean lau bost aldiz etortzen da ikastaroak direla eta. “Valentziatik askotan Euskal Herrira etortzea ezinezkoa egiten zaigunez, EMUnek hartu zuen Euskal Herriari TELP ikastaroa landu eta zabaltzeko ardura”.

Ez da Lasarte-Oriara egiten duzun lehenengo bisita... Ez 2006an TELP ikastaroa ematera etorri nintzen Iñaki Armutik gonbidatuta. Uste dut Euskal Herriari eman genuen lehenengo TELP-a izan zela hura.

Psikologoak izanda nolatan hasten zarete hizkuntzaren esparruan?

Ikusi genuen hizkuntza gutxituetako hiztunek oso jakearra izaten genituela zenbaitetan. Katalanaren aldeko manifestazio batean, Estudiantz per la Lengua taldeko gazte batzuk taberna batera sartu eta erdaraz eskatzen zuten genituen. Konturatu ginen katalanez eskatu eta tabernariaren “zer?” entzunda, gaztelera pasa zirela. Ikusi genuen hizkuntza mantendu nahi duten eta haren aldeko jarrera duten hiztun batzuek euren egunerokoan ez dutela oso modu koherentean jokatzen.

Ohartu ginen agian ez dela soilik kontzientzia kon-

pasatzeko. Ez die karga edo deserosotasuna eragiten. Arzaoa dute euskaraz bizi nahi duten hiztunek. Esparru askotan trabak aurkitzen dituzte eta ikastaroan lantzen diren bezalako tresnak behar dituzte. Tarteka gatazkak piztu daitezke beste pertsonak euskararekiko jarrera oldarkorra azaltzen badu eta jakin behar da erantzuten.

Gakoen artean, euskaraz hitz egitea legalki gure eskubidea dela oso argi eduki behar dugu eta baita ez ahozko komunikazioa %70 dela elkarrizketa batean, beraz keinuekin asko esan dezakegu hizkuntza aldatu gabe.

Gure ideia zabaltzeko liburu bat idatzi genuen *Sortir de l'armari lingüístic* eta Neurri handi batean adituek edo gaiarekiko kezka dutenek irakurri arren, publiko zabala- zentzuz eskuragarri dago.

Hiztun gutxiaren autoes- timu falta aipatzen duzue... Bai, autoestimua falta eta erro- dunt sentimendua. Gure jake- ra asko hori erakusten dutelako. Lagun talde euskal- dunean euskaraz ulertzen ez duen norbait sartzan bada zer egiten dute besteek? Gazte- raz hitz egiten dute berarekin baina baita gainontzekoekin ere. Hori zergatik egiten dugun galdetuta, erantzuna izan ohi da beste pertsona deseroso edo gaizki ez sentia- rzatuko dela. Baina egoera horretan, ez al gara gu desero- so sentitzen gure lagunekin gaztelera- z mintzatzera derri- gortuta?

Autobuserako txartel bat eskatzeko garaian, leihatilako pertsonak gaztelera- z esatoko esaten digunean gu ez gara gaizki sentitzen? Atzerriar batekin jarrera berdina har- tuko luke pertsona horrek? Atzerriar batek ez luke hizkuntza aldatuko. Egoera hauen inguruan hausnartu eta

Edozeini zuzendu al ziao TELP saio bat? Esango nuke beharrezkoa dela kontzientzia lingüistiko- a edukitzea. Euskal hiztun batzuek ar- zorik ez dute gaztelera- ra

pasatzeko. Ez die karga edo deserosotasuna eragiten. Arzaoa dute euskaraz bizi nahi duten hiztunek. Esparru askotan trabak aurkitzen dituzte eta ikastaroan lantzen diren bezalako tresnak behar dituzte. Tarteka gatazkak piztu daitezke beste pertsonak euskararekiko jarrera oldarkorra azaltzen badu eta jakin behar da erantzuten.

Gakoen artean, euskaraz hitz egitea legalki gure eskubidea dela oso argi eduki behar dugu eta baita ez ahozko komunikazioa %70 dela elkarrizketa batean, beraz keinuekin asko esan dezakegu hizkuntza aldatu gabe.

Gure ideia zabaltzeko liburu bat idatzi genuen *Sortir de l'armari lingüístic* eta Neurri handi batean adituek edo gaiarekiko kezka dutenek irakurri arren, publiko zabala- zentzuz eskuragarri dago.

Hiztun gutxiaren autoes- timu falta aipatzen duzue... Bai, autoestimua falta eta erro- dunt sentimendua. Gure jake- ra asko hori erakusten dutelako. Lagun talde euskal- dunean euskaraz ulertzen ez duen norbait sartzan bada zer egiten dute besteek? Gazte- raz hitz egiten dute berarekin baina baita gainontzekoekin ere. Hori zergatik egiten dugun galdetuta, erantzuna izan ohi da beste pertsona deseroso edo gaizki ez sentia- rzatuko dela. Baina egoera horretan, ez al gara gu desero- so sentitzen gure lagunekin gaztelera- z mintzatzera derri- gortuta?

Autobuserako txartel bat eskatzeko garaian, leihatilako pertsonak gaztelera- z esatoko esaten digunean gu ez gara gaizki sentitzen? Atzerriar batekin jarrera berdina har- tuko luke pertsona horrek? Atzerriar batek ez luke hizkuntza aldatuko. Egoera hauen inguruan hausnartu eta

jarrera kontzientea hartu behar dugu.

Hizkuntza ohiturak alda- tzea zaila al da? Bai, hala da. “Nire bikotea gaztelera- z ezagutu nunez, beti gaztelera- z egiten dugu gure artean. Ezin dugu alda- tu”. Oso ohikoa da erantzun hau bikote, sende, lagun edota lankideen artean. Haremana hizkuntza batean erakili dela dirudi baina aldatzea egin daiteke.

Bakaikun hau frogatzeko proba bat egin genuen “Es ke erdaraz ezagutu genuen elkar” deitu genion. Hiru bikoteak hizkuntza aldatzea egitera iritsi dira. Urte bete barri ikusi nahi dugu ea es- tuten dioten hizkuntza alda- keta. Hala izateko, tresnak landu genituen.

Hiztunek lana dugu baina erakundeek zer egin behar dute? Hiztuna babestu behar dute, beharrezkoak diren legeekin eta hauek beteazaten.

Bestealde, euskara erakar- garria egin behar dute. Kanpaina onak egin direla iruditzen zait. “Lehenengo hitza euskaraz” adibidez, oso eraginkorra da. Euskaduna- ri begi kolpe adierazten diozu euskaraz zuzen- du daitekeela langilea- rengana, zerbitzua euskaraz jaso dezakeela etab. Horrek nekea kentzen dio hiztunari, ez du estres lingüistiko- rik pairatzen. Erakundeek tres- nak eman behar dituzte, eredu onak, normalak hiztunengan modu positi- boan eragite- ko. Aipatu behar dut

udalak erabaki duen diskrimi- nazio posiboarena ere oso egokia iruditzen zaidala.

Euskararen osasuna zein dela iruditzen zaitu? Osasuntsu dago baina erabi- lera eragin beharra dago. Euskal Herriari orokorrean jarrera ona dago hizkuntza- rekiko, Valentzian berriz jarrera ez da ona katalanarekiko. Baina hemen falta da gaita- sunean eragitea.

Jendeak euskara badaki baina ez du erabiltzen eta erabilpenik gabe, jarria galdu eta ondoren gaizki hitz egi- tearen beldurratik edo ez du euskara erabiltzen. Aldatu behar da hau baina baikor- ratzeko garaia dela uste dut eta behingoz amaitu hizkunt- zaren inguruan entzun ohi diren jarrera ezkorrekin. Euskara bezalako hizkunt- zatar zahar batek azken 20 urtetan egin duen aldatzea oso positiboa da.

Euskaldun berria zara... Bai eta ia hemendik kanpo sortua. Bilbotarra naiz baina aspaldi nago Euskal Herri- tik kanpo. Euskara ikasi nuen 20 urterekin kanpora zuzentzeko jarrera jasan aurretik eta nolabait

TELPa eta ama izatear- ekin batera hasi nintzen euskara berri- z erabi- ltzen.





UDAKO TXOKOAK

2014

Izena emateko azken eguna maiatzaren 9a



Duda! EUSKARAZ UDA!

Ttakun Geltoki kalea 4

aisia@ttakun.com

TENISA.

ATG-ko finala asteburuan

ATG Lasarte-Oria txapelketako finalak jokatu dira hurrengo asteburuan kirol guneko tenis pistean.

Asteburu honetan final-erdiak izan dira eta larunbatean norgehiagoka interesgarriak izan ahal izan ziren.

Lehen partidari Gabriel Zubillaga eta Jon Ramos Lasartenis txapelketako finalista gazteak izan ziren lehian.

Zubillaga saikatu zen finalera Ramosi hiru setetan irabazita: 6-2, 3-6, 6-3.

Bigarren partidari berriz, Raul Ramos eta Inko Mugika izan ziren aurrez aurre.

Azken honek lortu zuen finalerako txartela 7-5 eta 6-2-ko emaitzaz.

Finalak

Era honetara, hurrengo larunbatean maiatzak 10, arratsaldeko 15:00etatik aurrera, tenisa izango da

magusi kirol guneko pistetan.

Lehenik, Quick edo kontsolazio txapelketako finala izango da.

Eta jarraian, 16:30ak alde-ira, final handia jokatuko dute Zubillaga eta Mugikak.

Herritarrek

Hainbat izan dira txapelketa honetan parte hartu duten herritarrek: Fermin Tena, Alex García, Alex Zubizarreta, Ander Huelgun edo Javier Velasco.

Txapelketatik kanpora geratu zuen azken ordezkaria Ander Huelgun izan zen.

Apirilaren 26an, Inko Mugikaren aurka galdu zuen herriko gazteak, 6-2 eta 6-1.

Final-zortzirenetan, berriz, Gabirik Zubillagak 6-2 eta 6-3 garaitu zuen Fermin Tena eta Ander Garciak ezin izan zuen Jon Ramosen aurka zuen partida jokatu.



Jon Ramos urrietarra pilota errebeze astintzen, larunbateko finalaurrekoan.

IGERIKETA.

Igerilariak ederki Huescako sarian

Ibarburuk junior onenaren saria eskuratu zuen

Buruntzaldea IKT-ko gazteak Panticosa aldean izan dira entrenatzen Pazko Astean. Irteerari amaiera emateko, Huesca Hiria sarian parte hartu zuten eta hiru domina, junior onenaren saria eta 14 marka pertsonal berri lortu zituzten igerilariak.



Buruntzaldea IKT-ko gazteak "Huesca Hiria" sarian lehiatu ziren. BURUNTZALDEA IKT

TXINTXARRI

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak ez dute atsedetik hartzen. Apirilaren 23tik 26ra taldeko infantil, junior, promesa eta absolutuak Panticosa lanean izan dira. Eta gainera bertan zeudela baliatuz, "XXII. Huesca Hiria" sarian lehiatu ziren larunbatean.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu duenez, "oinarriko lana egiteko oso baliagarria izan da itereara".

Txapelketari dagokionez, bakoitzak bi probetan parte hartu behar zuela aipatu du, bata 100 m. eta bestea 50 m. luserakoa eta bi denborak batzean sailkapena osatzen zela ere aipatu du.

Igerilariak markak hobetu zituzten eta kasu batzuetan

saria ere eskuratu zuten, Ainara Garciak eta Inigo Ibarburuk urrea lortu zuten, lehenak bular estiloan eta bigarrenek estilo librean; Itaso Tolosak berriz, brontzea lortu zuen bizkar estiloan.

Honetaz gain, Inigo Ibarburuk egindako denborez esker, bere markak hobetu zituen, junior mailako igelari onenaren saria ere eskuratu zuen.

Markak hobetz

Baina ez zen Inigo izan marka pertsonala jaisten bakarra: Nahia Jie Villamediana infantil, estilo bereko 50 m. eta 100 m. probetan Maialen Casado, Ainara Garciak 50 m. bular proban, Mikel Sotok 50 m. libreetan, Nora Irazusta

eta Amaia Izagirrek 50 m. eta 100 m. bizkar proban, Leire Carcedok eta Unai Iriborasek 50 m. eta 100 m. libreetan markak egin zituzten.

4x50 m. libre errelebuetan nesken taldea bederatzigarren izan zen. Mutilen taldeak, gehienbat infantilek osatua, 13. postuan amaitu zuen.

Gipuzkoako Selekzioa

Hau guztiaz gain, entrenatzaileak jakitera eman duenez, datorren asteburuan Mikel Ensal, Haitz Mitxelena, Inigo Ibarburu, Itaso Tolosa, Ainara Garcia eta Nahia Jie Villamediana Gipuzkoako selekzioarekin "Les 24eme Nautiques de Tarbes" Nazioarteko Sarian lehiatuko dira.

ARETO-FUTBOLA.

ISU Leihoak taldea play off-ean izango da

ISU Leihoak taldeak denboraldirako lehen fasea amaitu du. Ostiralean garaipean eskuratu zuen Teltatuberritaldaren aurka (3-1) eta sailkapenean hirugarren postua eskuratu du. Hurrengo astean play off-ean izango da hortaz.

Lasarte-Oriako kirolegian saikapeneko hirugarren eta laugarren taldeen arteko norgehiagoka borrokatua izan zen.

Etxeok aurreratu ziren Ander Pexarromanen baselinagolari esker. Lehen zatia amaitzeko bost minutu falta zirela ordea Landerrek penaltia egin eta banakoa sartu zuen zaldi-biarrek. Bigarren zatia hasterako berriro aurreratu zen ISU Petak takioez baloia saretera bidaltu eta hirugarren Mikelkin bat-bitxoa eginda sartu zuen.

Play-offerako prest

Hamaldu partida irabazi, bost berdinu eta lau galdu



Ander Pexarromanek, Ligako goleztaille nagusietakoak, hat-tricka egin zuen.

ostean, hirugarren postua ziurtatua zuen taldeak Gipuzkoako Ligan.

Helburua lehen lauren artean gertatzea izan zen, amaieran buelta eman genion eta bigarren itzulian irabazi. Goizko taldeekin gainera, berdinaketa lortu dugu. Ea nola doan play-off-a, aipatu du Molina prestatzaileak.

Honela, hurrengo larunbatean, saikapenaren bigarrenaren aurka jokatu du, Oiarzunen aurka hain zuten. Partida bakarreko kanporaketa izango da, eta etxetik kanpo jokatu beharko dute.

"Hiru aste izan ditugu partida prestatzeko. Zaila izango da han galdu egin baikeun eta hemen berdindu. Baina aukerak izan ditzakegu ongi jokatu gero", aurreratu du Molinak.

LABURRAK.

LOKEK hiru gerriko beltz berri ditu

Apirilaren 12an, LOKEKO Haritz Urdangarin, Ion Arroyo eta Abayuba Gutierrezek gerriko beltzaren azterketa gainditu zuten, Tolosan.

Goizean azterketa teorikoa eta arratsaldean partikoa izan zuten gazteak eta ederki egin zutela aipatu digu Gorka Aristegi entrenatzaileak. "Oso harro sentitzen naiz haiek egindako lana-eragatik eta zoriontzea besterik ez dut".

Bestalde, apirilaren 13an, Asier Sagastik senior mailako Espainiako iparraldeko eremuko txapelketa izan zuen. Zorte txarra medio, ez zuen Espainiako txapelketarako txartela eskuratu.



San Pedroko pilota txapelketan izena emateko azken egunak

San Pedroetako esku pilota edo emakumeentzako pala txapelketetan izena emateko azken egunak direla gogoratzen du Intza Kirol elkarteak.

Esku pilota txapelketan 2000 eta 2005. urteen artean jaiotako gazte edo txapelketen 36 urte baino gehiagokoek, dute txapelketan jokatzeko aukera.

Emakumeen pala txapelketan hamasei urte baino gehiagoko Lasarte-Oriako emakumeek parte-hartuko dute.

Txapelketa hauetan izena eman nahi duten herritarrek astearte edo ostegunetan 18:30etik 20:30era Michelin Kirol guneko pilotalekuan edo solanoy@hotmail.com helbide elektronikoan eman dezakete izena. Azken eguna, bihar, maiatzaren 6a izango da.

— Agenda —

Astelehena 05-Astezkena 07, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



Ekologia balio bezala

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Baloietan hezi jardunaldietan, aurten ekologia aztertuko da. Izan ere, ekologia, natura eta gizabidearen arteko harremana aztertzeko baita eta bizitza bere osotasunean ikustera behartzen gaitu. Hau aztertzeko hiru hitzaldi eskainiko dira:

Astelehena 05
"Ecologia y ecosistema" hitzaldia eskainiko du Xabier Murua Erlizio Zien-

tzen Goi Mailako Institutuko irakasleak.

Astearte 06
Unai Oñaederra Manu Robles Araguiz elkarteak ingeniaria eta kidea ekologiko eta giza baloreei buruz mintzatuko da.

Asteazkena 07
"Ecologia y sociedad" gaia jorratuko du Rai Mendiburuk, Aranzadi elkarteak inamizatzaile eta ingurumen hezitzaileak.

Larunbata 09, 23:55etan
Dj Cara B eta Ruger Jon dj-en emanaldia.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA
Ostirala 09, 19:30ean
Danok Kide elkarteak antolatutako IX. Musika topaketen barruan, Tolosako Hodeiertz abesbatzaren emanaldia.

Bakarrizketa
ABENDU KAFE-ANTZOKIA
Larunbata 10, 00:00etan
Miki Dkai-ren umorezko bakarrizketa, "Encomediados" emanaldien barruan.

Erakusketa
JALGI KAFE-ANTZOKIA
Maiatzaren amaiera arte
Patxi Unanueren argazki erakusketa izango da ikusgai.

Astigarraga
Pop-rock Topaketa
NORBERTO ALMANDOZ MUSIKA ESKOLA
Larunbata 10, 17:00etatik aurrera
Gipuzkoako sei musika eskolek 100 ikasle inguruk hartuko dute parte Popo Rock Topaketan.

Andoain
Antzerkia
BASTERO KULTURGUNA
Ostirala 09, 21:30ean
Mikel Laboaren musika eta Bernardo Atxagaren testuan oinarritutako, "Zazpi aldiz elur" lana eskainiko da. Sarrerak, 12 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 09, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Quay D'Orsay" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.
Igandea 11, 17:00etan
Haurren zinea atalean, "Las aventura



de Peabody y Sherman" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.
Igandea 11, 19:30ean
Helduentzako zinea, "Quay D'Orsay" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Bertso solasaldia

ARRRESKALETA ELKARTEA

Osteguna 08, 20:00etan
Bertsotzale elkarteak, Ttakun K.E. eta



Earral bertso eskolak antolatuta bertso solasaldiak egingo dira Andoni Egaña bertsolariarekin. 25 pertsonara mugatutako saioa da. Izena ematea Ttakun K.E.-en egin behar da.

Musika

ZULO ARETOA

Larunbata 09, 22:00etan

Javier Krahe kantatzailearen kontzertua. "Los diez de ultimas" diskoak lanak eskainiko ditu. Sarrera, aurretik, 13 euro; leihatilan, 16 euro.



— Herritarren txokoa —

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Irunea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.
"Ez zaituzte lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako eme garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Erketz-eko taldeen entsugak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak astartzen ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideak, berriaz ostegunetan.

Entsugak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gazteok ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenak 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiralen dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klaseak ordutzen.

Eskutitza

Demokrazia zabortegia?

Buzoia ireki eta Lasarte Oriako PSOE-ren papertxo bat; 5. edukiontziairen inposaketa saiakera dela eta haien poza erakustiaz eta nola ez, EH Bildu eta atez atekoaren aurkako mezu batekin. Nire barnean... "hauek dira demokrazia?" Azken asteetan bidali duten sasipanfleto hori ikusi duen orok ulertuko nau.

Urteak darमतzate hauek, haien burua demokraziaren martir batzuk bezala saltzen; demokrazia eta biolentzaren bereiztu. Baina, horrelako jarre-rarekin (panfletoa adibide gisa) demokraziari buru egiten diote. Ezer aporteratu beharrean (alde batera edo bestera) manipulazio eta engainuaren josten dute behin eta berri. Eta hon-dakinen gaia horren adibide argia izan da.

Hainbeste gorrajatzen den iparraldeko Europako edozein lurraldetan, horrelako zirkua baten aurrean, EH Bildu jarrera zibiko baten eredu litza-teke eta gaintzuetakoak progressoa eta Europaren aurkakoak. Marka da gero!

Praktika honek etekin lektoralarik ekar ditzake PSOE-erantzako. Baina

argi izan, dagoeneko aldatu nahi ez duen agure batena izango dela edo natura eta komunitatea bost axola zaion parasito batena izango dela bozka hori.

Beraz, urte hauetan, kapitalaren demokrazia (PP, PNV, PSOE (+UPN)) defendatutako izan dutena hauxe da, lau urtean behin hauteskundeak egiteko lasaitasuna. Demokrazia a la valencia-na. Eta ze paradoxo, bedeinkaziorik gabeko demokrazia direla demokrazia herritar baten alde lanean dihardute-na. Funtesean benetako demokrazia bat.

Arazoa ez baita soilik ditugun erakundeak; arazo handi bat direla denon ongizatea bermatzeko. Horri, alderdi horien kultur politikoa gehitu behar zaie. Edozein soluzio baino, arazoaren parte nagusi bihurtu direla. Boto sekretu gutxiago eta eztabaida publiko gehiago!

Iker Ortega
Politika eta Administrazio Zientzietako ikaslea

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 tintxarri@tintxarri.info

Bideo Lagunak

TIEN 21

Etxekotresna elektrikoetan adituak



Maiatzaren Setik 15era bitartean
zartagin bat opari izango duzu
edozein sukalde-plaka edo labe erosteagatik.



LED argitan dugun
eskaintza
aprobetxatu

DENA ORDAINDU

- 6 hilabetetan interesik gabe
- 12 hilabetetan interesik gabe
- 21 hilabetetan (UTB %2,23)



Donostia etorbidea 2 • Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com



LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

- D.B.H.
- BATXILERRA

Batxiler modalitateak, D ereduan:

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA

1. ibilbidea. Zientziak eta Ingeniaritza
2. ibilbidea. Osasun Zientziak

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

1. ibilbidea. Giza Zientziak
2. ibilbidea. Gizarte Zientziak

Zure
au era



**Batxilerrerako
aurrematrikula,
Maiatzaren Setik 15era**



www.instilasarte.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1- LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

